**UDAL-BATZARRA 15/03**

**UDAL-BATZARRAK, 2003ko urriaren 2an EGINDAKO OHIZKO BILKURARI DAGOKION AKTA**

**PARTAIDEAK:**

**ALKATEA:**
Fidel Azpiroz Arrillaga

**ZINEGOTZIAK:**
Jose Ignacio Otermin Garmendia
Kepa De la Iglesia Sánchez
Jesus Mª Arsuaga Lizaso
Mikel Zubillaga Galárraga
Mª Carmen Egurza Salaberria

**IDAZKARIA:**
Nekane AGIRRESAROBE ETXEBERRIA

ANOETAko Udaletxean, 2003ko urriaren 2an iluntzeko zazpi terdiak direnean eta aurrez dei egin ondoren, Udal-Batzarra elkartu da, Ohizko Bilkura egin asmoz Fidel Azpiroz Arrillaga alkate jaunaren mahaiburutzapean eta alboan aipatzen diren Zinegotzi guztiek parte hartzen dutelarik. Silvia Dos Santos Leite, Nieves Alarcos Martinez eta Juan Jose Martin Zubelzu Zinegotziak ez dira etorri eta ez dute arrazoirik adierazi; idazkaria, Nekane Agirresarobe Etxeberria and.

**1.- 2003KO UZTAILAK 29KO BILKURAKO AKTAREN ONESPENA.**

Udalbatzak 2003ko uztailaren 29an egindako bilkuraren akta irakurri eta aho batez onetsirik geratu da.

Es leida y aprobada por unanimidad de los reunidos el acta de la sesión celebradas con fecha 29 de julio de 2003.

**2.- ALKATETZAKO DEKRETUEN BERRI EMATEA.**

Fidel Azpiroz Arrillaga Alkate Jaunak egindako ebazpenen berri eman du, alegia, 375tik 452ra biak barne, korporakideek jakitun geratzen direlarik.

El Sr. Alcalde D. Fidel Azpiroz Arrillaga da cuenta de las resoluciones dictadas correspondiente a los números comprendidos entre el 375 al 452, ambos inclusive; dándose la Corporación por enterada.

**3.- HAUR ESKOLAK ETA 0-3 ADIN TARTEKOEN ASISTENTZI ETA HEZIKETA ATENTZIOA KUDEATZEKO, "HAURRESKOLAK"**

**PARTZUERGOAN UDALERRI HAU SARTZEKO PROPOSAMENA. ETA HALA BEHAR BADA, ESTATUTUEN ONARPENA.**

Fidel Azpiroz Arrillaga Alkate jaunak partaideei adierazi die:

*"Eusko Jaurlaritza eta Udalen artean, "Haurreskolak" partzuergoa eratuko duen hitzarmen eredua eta estatutuak onartuak izan dira 2003ko uztailaren 29ko Gobernu Kontseiluak. Partzuergo honen beteharreko eginkizunak, haurreskolak 0-3 urte bitarteko asistentzi, heziketa eta atentziorako kudeaketa osoa egitea da.*
*Ondoren, Kepa De la Iglesia zinegotziari hitza ematen dio eta honek zehaztasun osoz, orain arte egitasmo hau aurrera eramateko egin diren pausoak azaltzen ditu. Prozesu guzti hau Ikastolarekin elkarlanean aurrera eraman dela jakinaraziz".*

Hur-eskolen kudeaketa integralerako eta hiru urtetik beherakoen asistentzia- eta hezkuntza- arretarako "Haurreskolak" Partzuergoko eraketarako Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa sailak bidaliriko espedientea ikusirik.

Udal hau "Haurreskolak" Partzuergoan sartzea komenigarria dela kontutan hartuz, eta aurkeztu den Estatutu-egitasmoaren edukina aztertu ondoren.

Kontsorzio horretaz eta Estatutu Egitasmoaz hartzen den erabakia, indarrean dagoen arautegira egokitzeari buruz Idazkari-Kontuhartzaileak luzatu duen informe ikusirik.

Udalbatza osatzen duten eskubidezko eta gertatzezko bederatzi zinegotzietatik seien botu baikorraren bidez, erabaki hau hartzeko beharrezkoa eta nahikoa den kopurua osatzen dutelarik, hauxe erabakitzen da:

Visto el expediente remitido por el Departamento de Educación, Universidades e Investigación del Gobierno Vasco en relación a la constitución del Consorcio "Haurreskolak" para la gestión integral de las Escuelas Infantiles y la atención asistencial y educativa de los menores de tres años en la Comunidad Autónoma del Pais Vasco.

Considerando conveniente la integración de este municipio en el expresado Consorcio "Haurreskolak" y estudiado el contenido del proyecto de estatutos presentado.

Visto el informe emitido por la Secretario-Interventor sobre la adecuación del acuerdo que se adopte sobre dicho Consorcio y proyecto de Estatutos a la Normativa vigente de aplicación.

Se acuerda con el voto favorable de los seis concejales presentes de los nueve de derecho y hecho que compone la Corporación, que representan el número suficiente y necesario para adoptar este acuerdo:

Lehenengo.- Adieraztea udal hau Euskal Autonomi Erkidegoko Haur-eskolen kudeaketa integralerako eta hiru urtetik beherakoen asistentzia– eta hezkuntza-arretarako "Haurreskolak" Partzuergoko kide dela eskubide osoz.

Primero.- Declarar integrado este municipio como miembro de pleno derecho en el Consorcio "Haurreskolak", para la gestión integral de las escuelas infantiles y la atención asistencial y educativa de los menores de 3 años en la C.A.P.V.

Bigarren.- "Haurreskolak" Partzuergoko estatutuen egitasmoa onestea, akta honekin batera doan alean azaltzen den eduki guztia, bere osotasunean, kontuan izanik.

Segundo.- Aprobar el proyecto de estatutos del Consorcio "Haurreskolak" con su contenido y tenor literal que figura en el ejemplar adjunto a la presente acta.

Hirugarren.- Alkate-Lehendakaria den Fidel Azpiroz Arrillaga jauna ahalmentzea akordio hau gauzatzeko behar diren dokumentu publiko nahiz pribatu guztiak sinatzeko.

Tercero.- Facultar al Alcalde-Presidente D. Fidel Azpiroz Arrillaga para la firma de cuantos documentos públicos o privados sean necesarios en orden a la formalización del presente acuerdo.

Laugarren.- Aipaturiko estatutuen 11. artikuluak dioenaren arabera, Udal honetako zinegotzia den Kepa De la Iglesia Sánchez jauna udal honen ordezkari izendatzea "Haurreskolak" Partzuergoan.

Cuarto.- De conformidad con lo previsto en el art. 11 de los precitados estatutos, se nombra al Concejal de este Ayuntamiento D. Kepa De la Iglesia Sánchez como representante de este municipio en el Consorcio "Haurreskolak".

## 4.- APATTAERREKAKO INDUSTRIGUNEA, S.M-N ANOETAKO UDALAREN ORDEZKARIAREN IZENDAPENA.

Fidel Azpiroz Arrillaga Alkate jaunak partaideei adierazi die:

*"Uztailaren 10eko udalbatzan, Erakunde desberdinetarako Udalbatzaren ordezkarie izendapenak izendatu ziren eta Apattaerrekako Industrigunea, S.M zintzilik geratu zen. Ondorioz, entitate honetan, Fidel Azpiroz Arrillaga Anoetako ordezkari izendatzea `proposatzen da".*

Joan den ekainaren 14ean eratutako Udal berria kontutan harturik eta Alkate jaunaren proposamenez, partaideek aho batez erabaki dute Udal honetako Alkate-Lehendakaria den Fidel Azpiroz

Teniendo en cuenta la nueva constitución del Ayuntamiento de fecha 14 de junio de 2003 y a propuesta del Sr. Alcalde se acuerda por unanimidad de los reunidos designar al Alcalde-Presidente de

| | |
|---|---|
| Arrillaga jauna "Apattaerreka-Industrigunes, S.M"-n ordezkari izendatzea. | este Ayuntamiento D. Fidel Azpiroz Arrillaga representante de esta Corporación en la Sociedad Mercantil "Apattaerreka-Industrigunea, S.M". |

**5.- 1/2003 ZENBAKIDUN KREDITU ALDAKETARI BURUZKO ESPEDIENTEARI ONARPENA EMANEZ ALKATETZAK EBATZITAKO DEKRETUAREN BERRI EMATEA.**

Fidel Azpiroz Arrillaga Alkate jaunak partaideei adierazi die:

*"2002ko kreditu gerakinak 2003 urteko apirilaren 22ko datako ebazpenaren bidez onetsi zirela, urte horretako Aurrekontuaren likidazioarekin batera; eta honen arabera, Kreditu Aldaketarako espedientea kreditua txertaketa motan".*

| | |
|---|---|
| Ondoren, 2003ko irailaren 25eko alkatetzaren ebazpenaren berri ematen da, zehatz-mehatz honela dioena: | A continuación se da cuenta de la resolución de alcaldía de fecha 25 de septiembre de 2003 que dice como sigue: |
| "DEKRETUA<br>Anoetan, bi mila eta hiru urteko irailaren hogeita bostean. | "DECRETO<br>En la Villa de Anoeta a 25 de septiembre de dos mil tres. |
| Aurreko urteko Aurrekontuko kreditu gerakinak txertatu izanaren ondorioz Udalaren 2003ko Aurrekontuan izapidetutako 1/2003 zbk. duen kreditu aldaketarako espedientea aztertu dugu. | Visto el expediente nº 1/2003 de modificación de créditos instruido en el Presupuesto de 2003 del Ayuntamiento, por incorporación de remanentes de crédito del Presupuesto del ejercicio anterior. |
| Idazkari-Kontuhartzailearen aldeko txostena eta espedientean egin diren gainantzeko aktuazioak ikusirik. | Visto el informe favorable del Secretario-Interventor y el resto de actuaciones practicadas en el expediente. |
| 2003ko Aurrekontuaren Exekuzio Oinarrietako 13. artikuluak ematen dizkidan eskumenez baliatuz, honako hau | En el ejercicio de las competencias que me atribuye el art. 13 de las Bases de Ejecución del Presupuesto de 2003 |
| EBATZI DUT: | HE RESUELTO: |
| **Lehenik**.- Aurreko ekitaldiko Aurrekontuko kreditu gerakinak Udalaren 2003ko Aurrekontuan txertatu izanaren ondorioz kredituak aldatzeko 1/2003 zk.ko espedientea onestea, aipatu txertaketak hartzen dituen kapituluen laburpen | **Primero**.- Aprobar el expediente de modificación de créditos nº 1/2003 por incorporación de remanentes de crédito al Presupuesto de 2003 del Ayuntamiento procedentes del Presupuesto del ejercicio anterior conforme al siguiente resumen por Capítulos afectados por dicha incorporación |

honen arabera:

Capítulos afectados por dicha incorporación.

GASTUAK-GEHIKUNTZAK
GASTOS-AUMENTOS

| Kap. | Izena | €uroak |
|---|---|---|
| lI | Ondasun arrunten eta zerbitzuen erosketa/ Compra de bienes corrientes y Servicios | 16.461,61,- |
| lV | Trasferentzia gastuak / Transferencias Corrientes | 24.393,79,- |
| VI | Inbertsio Errealak/ Inversiones reales | 168.305,04,- |
| TXERTATUTAKO GERAKINAK GUZTIRA/ TOTAL REMANENTES INCORPORADOS | | 209.160,44,- |

SARRERAK-FINANTZAKETA
INGRESOS-FINANCIACION

| Kap. | Izena | €uroak |
|---|---|---|
| 8 | Aktibo Finantzieroak /Activos Financieros | 209.160,44,- |
| KREDITU TXERTAKETAK GUZTIRA/TOTAL IGUAL A LAS INCORPORACIONES DE CREDITO | | 209.160,44,- |

**Bigarren**.- Egintza hau bestelako tramiterik gabe irmo eta betebeharrekoa denez gero, bidezkoa da onetsitako aldketa Fondoen Kontuhartzailetza Zerbitzuek kontabilitatean berehalako ondorioekin isladatzea, gastuetan zein sarreretan, guzti hoenn

**Segundo.-** Siendo este acto firme y ejecutivo sin necesidad de ulteriores trámites procede que por los servicios de Intervención de Fondos se refleje en la Contabilidad la modificación aprobada tanto en gastos como en ingresos, con efectos

berri Udal Batzarrari eman beharko zaiolarik ospatzen duen lehendabiziko bileran.

Alkate-Lehendakari Jauna den Fidel Azpiroz Arrillaga Jaunak agindu eta sinatzen du, eta neuk, Idazkari-Kontuhartzaileak fede eman".

inmediatos, ello sin perjuicio de dar cuenta de este acuerdo al Pleno municipal en la primera reunion que celebre.

Lo manda y firma el Sr. Alcalde-Presidente D. Fidel Azpiroz Arrillaga, de lo que yo, el Secretario-Interventor doy fé".

## 6.- 2/2003 ZENBAKIDUN KREDITU ALDAKETARI BURUZKO ESPEDIENTEA ONARTZEKO AKORDIOA.

Fidel Azpiroz Arrillaga Alkate jaunak partaideei adierazi die:

"2/2003 zenbakia duen kreditu aldaketarako izapidetzan dagoen espedienteak, ohizkanpoko kreditu eta kreditu gehigarriena, jarraian aipatzen diren puntuei dagozkien beharrezko kredituak sortzea du helburu:
1.- 0-2 urte bitarteko Haurreskola sortzeko lokal baten eskuratze eta egokitzea.
2.- KZ guneko zerbitzua sortzeko udalak Solkorre, 4ean duen lokal baten egokipenerako.
3.- Telefono ekipoaren berritzea."

Udal honen 2003ko ekitaldiko Aurrekontuaren barnean, ohizkanpoko kreditu eta kreditu gehigarrien erregimenean izapidetzen den 2/2003 zbk duen kreditu aldaketarako espedientea azterturik.

Aurrekontu partidetako kredituak gehitzeko proposamenak eta hauek finantzatzen dituzten baliabideak, eta txostenak, ziurtagiriak eta aipatutako agirian egindako gainerako iharduketak ere azterturik.

Gastuak burutzeko premia larria eta aipatutako gehikuntzak finantzatzen dituzten baliabideen eraginkortasuna behar bezala egiaztatuta geratu da eta kreditu ldaketa hori Aurrekontuaren garapena arintzeko eta eragiten dien zerbitzuen kudeaketa hobetzeko mesedegarria izango da.

Visto el expediente de modificación de créditos nº 2/2003 que se instruye mediante el régimen de Créditos Extraordinarios y Suplementos de Créditos, dentro del Presupuesto de 2003 del Ayuntamiento de Anoeta.

Examinadas las propuestas de incrementos de créditos de las partidas presupuestarias y de los recursos que las financian así como los informes, certificaciones y demás actuaciones practicadas en dicho documentos.

Teniendo en cuenta que queda suficientemente acreditada la urgente necesidad de la realización de los gastos así como la efectividad de los recursos que financian tales incrementos y que dicha modificación de Créditos ha de contribuir a agilizar el desarrollo del Presupuesto y una mejor gestión de los servicios a que afecta.

Halaber, Idazkari-Kontuhartzaileak egin duen txostena ikusi ondoren, non jasota gerarazi baitu aipatutako espedientea aplikagarria zaion legezko araudiari egokitzen zaio.

Partaideek aho batez erabakitzen dute:

Lehenik.- Anoetako udal honen aurtengo ekitaldiko Aurrekontuari eragiten dion kreditu gehigarrien bidez egin beharreko kreditu aldaketarako 2/2003 zenbakia duen espedientea onestea, proposamenaren eta ondoko kapitulukako laburpenaren arabera:

Visto asimismo el informe del Secretario-Interventor haciendo constar que la instrucción de dicho expediente se ajusta a la normativa legal vigente que le es de aplicación.

Se acuerda por unanimidad de los reunidos:

Primero.- Aprobar el expediente de Modificación de Créditos nº 2/2003 mediante Créditos Extraordinarios y Suplementos de Créditos del Presupuesto del Ayuntamiento de Anoeta, conforme a la propuesta formulada y siguiente resumen por Capítulos:

## FINANTZATZEN DITUZTEN BALIABIDEAK
## RECURSOS UTILIZADOS

| Kapituloa | Izena | Gehikuntzak |
|---|---|---|
| 8 | Aktibo finantzieroen aldaketa/ Variación de activos financieros | 168.498,39,- |
| **GEHIKUNTZAK GUZTIRA / TOTAL AUMENTOS** | | **168.498,39,-** |

## GASTUEN GEHIKUNTZAK – OHIZKANPOKO KREDITUAK
## AUMENTOS EN GASTOS - CREDITOS EXTRAORDINARIOS

| Kapituloa | Izena | Gehikuntzak |
|---|---|---|
| 6 | Inbertsio errealak / Inversiones reales | 168.498,39,- |
| **GUZTIRA / TOTAL** | | **168.498,39,-** |

Bigarren.- jendaurrean ikusgai jartzea, erreklamazioen ondorioetarako. Erreklamaziorik aurkezten ez bada, erabaki hau behin-betikotzat joko da. Espediente honi aurrekontu Orokorra onesteko ezarritako gainerako tramiteak eman beharko zaizkio.

Segundo.- someter el expediente a información pública por el plazo de quince dias a efectos de reclamaciones. De no prsentarse reclamaciones este acuerdo devendrá definitivo, debiendo darse a este expediente los restantes trámites iguales a los establecidos para la aprobación del Presupuesto General.

**7.- 2003KO UZTAILAREN 10EKO UDALBATZAN ONARTUTAKO ASISTENTZIA (UDALBATZARRETARA ETA BATZORDE INFORMATZAILETARA) DIETAK ALDATZEKO AKORDIOA.**

Ikusirik, Udal erdi mailako teknikaria den Garikoitz Lekuona Izeta jaunak luzatu duen ondorengo txostena:

Visto el escrito presentado por el técnico medio municipal D. Garikoitz Lekuona Izeta que dice como sigue:

*"2003ko uztailaren 10ko dataz burututako Ohizkanpoko biluraren 6. puntuan "Udalkideen asignazioak kargu publikoa betetzeagatik" gaia aztertu eta ondoko erabakia hartu zen:*

*"2003rako EUDELek emaniko irizpideen oinarrituz asignazio ekonomiko ezberdinak proposatu eta onartu ziren aho batez, hala nola, Udalbatzako kide bakoitzeko, parte hartzen duten beren organo kolegiatuetako bilera bakoitzeko 9,62 € orduko ordaintzea".*

*Hau da, sesioko ordaindu beharreko kantitateari erreferentzia egin ordez, garaiko idazkariaren akats bat tarteko, orduko kantitateari egin zitzaion erreferentzia.*

*Beraz, ordaindu beharreko kantitatea honela geratzea proposatzen da, hurrengo Udalbatzan aztertu beharreko puntu bat bezela aurkeztuz:*

*"Udalbatzako kide bakoitzeko, parte hartzen duten beren organo kalegiatuetako bilera bakoitzeko 9,62 € ordaintzea", eta ez "orduko", uztailaren 10ko Ohizkanpoko Udalbatzan erabaki bezela".*

Hau dela eta, partaideek aho batez erabaki dute:

Udalbatzako kide bakoitzeko, parte hartzen duten beren organo kalegiatuetako bilera bakoitzeko 9,62 € ordaintzea", eta ez "orduko", uztailaren 10ko Ohizkanpoko Udalbatzan erabaki bezela.

Ante ello, se acuerda por unanimidad de los reunidos:

Abonar a cada concejal 9,62 euros por asistencia a cada una de las Comisiones Informativas y no "por horas" como se aprobó en el pleno extraordinario celebrado el 10 de julio.

## 8.- 2003 EKITALDIRAKO PLANTILA ORGANIKOA ETA LANPOSTUEN ZERRENDA ALDATZEKO AKORDIOA.

2003ko otsailaren 6an Udalbatzak udaletxeko langileak eta lanpostuen zerrenda onartu zen, eta Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean, 83. zenbakian, argitaratu zuen 2003ko maiatzaren 6an.

Vista la plantilla y relación de puesto de trabajo del Ayuntamiento aprobada en sesión plenaria celebrada con fecha 6 de febrero de 2003 y publicada en el Boletín Oficial de Gipuzkoa nº 83 de fecha 6 de mayo de 2003.12.09

Kontutan hartu behar da lanpostu-hornikuntza oposizio-lehiaketa bidez egin behar dela, eta ez lehiaketa bidez; gainera, eskatutako titulazioa lanpostuaren ezaugarriei egokitu behar zaie, lan-eskaintza publikoa eta ondoriozko deialdi publikoa udaletxeko langileen plaza guztiak jabetzan betetzekoa, onartu baino lehen.

Considerando que la forma de provisión de las plazas debe ser la de concurso-oposición, en lugar, de la de concurso y que debe adecuarse la titulación exigida con las características de la plaza, previamente a aprobarse la oferta de empleo público y consiguiente convocatoria pública, para cubrir en propiedad todas las plazas de la plantilla del Ayuntamiento.

Partaideek aho batez erabakitzen dute:

Lehenengo.- 2003ko ekitaldiari dagokion Udal honetako lanpostuen zerrenda era honetan moldatzea:

- Lanpostu-hornikuntza guztiak, idazkari-kontuhartzailearena izan ezik, oposizio-lehiaketa bidez egingo dira.
- Erdi-mailako teknikariaren lanpostuarentzako eskatuko den titulazioa hau izango da; Zuzenbidean Diplomatua edo Enpresa Zientziatan Diplomatua (ZD/ED), Administrazio Orokorreko mailan.

Bigarren.- Akordio hau Gipuzkoako Aldizkari ofizialean argitaratzea.

Se acuerda por unanimidad de los reunidos:

Primero.- modificar la relación de puestos de trabajo de este Ayuntamiento, correspondiente al ejercicio 2003 en el siguiente sentido:

- La forma de provisión de todas las plazas, con excepción del Secretario-Interventor, será la de concurso-oposición.
- La titulación exigida para la plaza de técnico grado medio será de Diplomado en Derecho o Diplomado en Ciencias Empresariales (DD/DE), escala Administración General (AG).

Segundo.- Publicar el presente acuerdo en el Boletin Oficial de Gipuzkoa.

## 9.- GALDE-ERREGUAK

Galde-erreguen garaian, batzordera agerturiko bizilagunak ondorengo galderak egin dituzte:

En el periodo de ruegos y preguntas el publico asistente a la sesión ha formulado las siguientes:

2. Puntuari dagokionez:

*Nik hor pare bat galdera egin nahi nituzke, 418. dekretuak dio arrazoi batzuk direla medio, udaletxeko zerraila aldatzera dijoaztela, batetikan esan nahi dute bere garaian Anoetako talde bezala eta herriak ala aitortu digulako daukagun eskubidea gela bat erabiltzeko, hori ere eskatu zen eta ea nola dagoen gai hori jakin nahi dugu eta bestetik 3.140,77 euro gehiegizko kantitate bat iruditzen zaigula hor azaltzen diren arrazoientzako, deskontrola balitz agian nahikoa izango litzateke sarrerakoa aldatzea.*

*.../...*

*Bestetik 429 dekretuak dio, Anoetako parrokiako erretoreak eliz barruan hainbat gauza egiteko eskaria luzatu duela eta udal-teknikariaren txostena badagoen jakin nahi genuke; bakarrik hor aipatu nahi nukeena da Anoetako parrokia dagoela izendatuta patrimonio kulturalaren barruan babes arkeologikoa bezala, orduan ia Foru Aldundiari edo dagokion aditu taldeari, Aranzadi, Arqueolan... edo dena delakoari informea eskatu zaion ondare kultural hori aldaketa baterako beharrezkoa den informe hori . Nik ditudan informazioaren arabera, hasierako 15. mendeko elizaren fatxada da eta hor daude bai jatorrizko arkua eta guzti hori, hori modifikatu beharko litzatekenez agian indusketa bat edo informea beharko genuke".*

7. Puntuari dagokionez:

"*Udalkideen asignazioaren inguruan eskatu nahi nuke orain arte zuek kobratu duzuen datua eta guri dagokiguna. Guri ere herritarrengatik hautatuak izan ginen eta daukagun eskubidetako bat hori dela, gure taldeak duen gastuak ordaintzeko.*

*Guk egiten genuen irakurketa zen herritarren irakurketa, herritarren borondateren irakurketa xume bat. Horretarako dauden datuak oso objetiboak dira, guri 4 dagozkigu, zuei ez dagozkizue 9 eta nahiz eta oraindik zentimorik ez kobratu zuek onartu duzuen asignazioa 9 hautetsiena da eta hori ez da herriaren nahia. Badaude horretarako irtenbide juridiko eta legitimoak eta guk hori aldarrikatzen dugu".*

8. Puntuari dagokionez:

*"Lanpostu hauek zer dira, bulego orokorrekoak bakarrik edo udaletxe guztikoak..."*

Beste galderak:

*"- Ze egoeratan daude Loatzoko irakasleen kontratuak? Oraindik kontratuak ez dira sinatu?*

- *Halako salaketa txiki bat egin nahi genuke Gizarte Zerbitzuetako batzordeak Anoetarren giza eskubideak apurtzen duela uste dugu eta baita ere udalaren araudia.Anoetako udalak, anoetar euskaldunen eskubideak onartu zituen eta Gizarte Zerbitzu batzordeak ez ditu eskubide hauek betetzen, gazteleraz burutzen bait dira bilera hauek eta badirudi anoetar euskaldunak bigarren mailako biztanleak garela. Bestetik Anoetako udalak aho batez onartu zuen euskararen ordenantzak eta horiek ez dira betetzen".*

Beste aztergairik ezean, bilkura amaitutzat jotzen da arratsaldeko 20 ordu eta 25 minutu direnean; guzti honetaz, ni Idazkariak fede ematen dudalarik.

Sin más asuntos que tratar se levanta la sesión a las 20 horas 25 minutos; de todo lo cual, yo el Secretario doy fé.